

Euskararen historia gazteentzat

Euskararen bilakaera eta hari buruzko iritzia bilduko dituzte Euskara Mintzagai izeneko bilduman

EKAIN ROJO

Donostia

Bilduma berriko lehen bi aleak plazaratu ditu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, eta bildumak liblibide luzea izango duela iragarri du Patxi Baztarrika sailburuak, «euskararen gaineko xehetasunak ez baitira gutxi». UEU eta Labayru Ikastegiarekin batera sortu da Euskara Mintzagai liburu bilduma, bereziki gazteak eta ikastetxeak gogoan harturik. «Helburu argia du: euskararen bilakaeraren berri ematea eta gure hizkuntzaren eta garai bakoitzeko gizartearen artean izan den harremana jorratzea».

Ekimenak ekarri dituen lehen bi fruituek erakusten dutenez, argitalpen arina izango dute irakurleek esku artean, argazki eta mapa aberatsekin hornitua. Gehienez 70 orrialdeko luzera edukiko dute, eta dibulgazioak izango dira. Baztarrikaren esanetan, 14 eta 17 urte bitarteko ikasleentzat ez ezik euskararen interesa duen edonorentzat



Lore Erriondo, Patxi Baztarrika eta Miren Dobarán, atzo, bilduma berriaren aurkezpenean. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

ere «tresna gozagarria» izango da aurrerantzean. Datorren urtean euskal zenbakiei buruzko liburu bat eta euskalkiei buruzko beste bat argitaratzea espero dute.

Besteak beste literaturan, bertsolaritza, kazetaritza, hedabideetan, irakaskuntza eta soziolinguistikaren euskarak izandako eboluzioa ukituko dute liburuetan, eta, bistan denez, hizkuntza izango da aztergai eta ikerketaren

jomuga. Euskararen jatorriari buruzko gogoeta, behinolako hedapena eta beste hizkuntzen etorrerak utzitako aztarna izango da abiapuntua *Euskararen geografia historikoa* lanean. Labayru Ikastegiaren uztia izan da lehen liburua.

Ahozkotik idatzira euskarak XX. mendean egindako igarobidea landu dute bigarren ekarpenean. Udako Euskal Unibertsitatearen ardura izan da *Ahozko hitzetatik*

idatzietara Ikasi eta Jardun idaztea. Lore Erriondo UEUko zuzendariaren hitzetan, «begietatik sartzea nahi da, irakurterraza eta aldi berean egokia eta zuzena izatea, eta muina edukitzea». Euskara sarri filologia gaitara mugatzen dela dio Erriondok, eta bildumaren bidez joera hautsi nahi dutela, hizkuntzak zeresana duen hainbat gaitan parte hartuta.

Euskararen aldeko atxikimen-

dua sustatzeko Jaurlaritzak hizkuntzaren oroimena berreskuratzeari funtsezko deritza Baztarrikak: «Oroimenak etorkizuna erakitzea garrantzitsua». Euskararen begirunea handitzea ere aipatu du. «Horretarako, ezinbestekoa da ezagutzea, zaila baita ezagutzen ez dena errespetatzea eta maitatzea». Gabezia bete nahi du bildumak.

INTERNETEN AGERTOKIA. Esku artean hartu ahalko den sailaz gain, Interneten ere agertoki zabala izango du Euskara Mintzagai egitasmoak. Hala, ordenagailuaren bitartez liburuak etxeko ordenagailura ekarri ahal izango dira, eta sarean dokumentu osagarriak jarriko dituzte teknologia berriek emandako lotura eta guzti. Eusko Jaurlaritzaren www.euskara.euskadi.net webgunean agertzen da sarean.

Miren Dobarán Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Euskara Sustatzeko zuzendariaren esanetan, bi adierazpide izango ditu: batetik, euskararen inguruko usteak eta iritzia; eta, bestetik, Euskara Mintzagai liburu bilduma. Historian hainbat autorek euskarari buruz egindako gogoetak bilduko ditu, eta liburuak arakatzeko aukera. Eskoletarako prestatutako ariketak ere badaude Interneten.

Liburuetatik haratago, soinu, ikus-entzunezko eta idatzizko lotueta baina ibil daiteke erabiltzailea Interneten. «Ikastetxetan atalez atal lantzeko oso erabilgarria», Dobaránek arabera.

NEURRI BERRIAK IRUZUR FISKALAREN AURKA

Bizkaiarekin ez da jolasten

Iruzur fiskala egiten duenak Bizkaiari egiten dio iruzur. Bizkaiko Foru Aldundiak neurri berriak hartu ditu elkartasun ezaren aurka: batetik, hitzarmenak erakunde, erregistratzaile, notarioen elkargo eta beste administrazio batzuekin, eta bestetik, kudeaketa eta ikuskapen sistemak hobetzeko neurriak. 2003tik 2007ra bitartean, Bizkaiko Foru Ogasunak 874 milioi euroko zerga-iruzurrak aurkitu ditu.

Bizkaiko oraina eta geroa ez dira jolasa.



Batzuek ordaintzen ez dutena denon artean ordaindu behar dugu

